



EGONKORTZE-PROZESUKO HAUTATUTAKOEN ZERRENDARI BURUZKO INFORMAZIO-OHARRA, IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPEN-PROZESUARI BEGIRA

Ekainaren 23an argitaratutako informazio-oharrean adierazten zen bezala, hautatuen behin betiko zerrendak, egun horretan webgunean argitaratuak eta ekainaren 29ko EHAAan argitaratu dena, aldaketak izango ditu zerrenda horretako pertsonen ukoen ondorioz.

Hautaketa-prozeduratik eratorritako eskubideei uko eginez gero 2023ko irailaren 30ra arte, ordezkotza izangaien hautatuen zerrenda erabiliko da, 2022ko irailaren 22ko Aginduaren bidez argitaratutako deialdiaren 7.5 oinarrian eta 2022ko azaroaren 30eko Aginduaren bidez argitaratutako deialdiaren 7.6 oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

2023ko ekainaren 27ra arte (12: 00ak arte) jasotako ukoen ondorioz salbuespenezko prozesu honetako plaza baten esleipendun izango diren ordezkoek ikasturte hasierako esleipenetan parte hartu ahal izango dute, hautatutako gainerako pertsonen baldintza berberetan (I. eranskina, ordezkoak, eta II. eranskina, ukoa aurkeztu duten pertsonak eta III. eranskina, Hezkuntzako sailburuaren 2022ko azaroaren 30eko Aginduaren 7.5 oinarriaren arabera adierazitako egunera arte irakasleen kidegoa aukeratu duten pertsonekin.).

2023ko irailaren 1a baino lehen (egun horretan izango ditu ondorioak egonkortze-prozesuan hautatutako pertsonen plazen esleipenak), Hezkuntzako sailburuaren agindu bidez argitaratuko da hautatutako pertsonen zerrenda osagarria (aipatutako ordezkoak sartuz), adierazitako oinarrietan aurreikusitakoaren arabera.

Era berean, hautatutako behin betiko zerrendan antzemandako akats material bat zuzenduko da. Hezkuntza Orientabideko espezialitateko behin-behineko zerrendan hautatutako izangai baten kasua da, Alfredo Saenz Ibañez Jauna, akats material informatiko baten ondorioz hautatuen behin betiko zerrendan agertzen ez dena (behin-behineko zerrendan agertu arren). Horrenbestez, Hezkuntzako sailburuaren Agindu bidez argitaratuko da hautatuen zerrendan antzemandako akatsaren zuzenketa, hori ere 2023ko irailaren 1a baino lehen, data horretan izango baititu ondorioak egonkortze-prozesuan hautatutako pertsonen plazen esleipenak. Pertsona horrek, beraz, ikasturte hasierako esleipenetan ere parte hartuko du, hautatutako gainerako pertsonen baldintza berberetan.

Ohar garrantzitsua:

Ikasturte hasierako prozesuaren egutegia kontuan hartuta, aipatutako hiru eranskinetan argitaratutako informazioa 2023ko ekainaren 27ko 12:00ak arte aurkeztutako uko egiteei buruzkoa da.

Hala ere, uko egiteko eta ordezkatzeko egoera berriak kudeatzen jarraituko da, eta argitalpen berriak egingo dira.